



ALBERTO BARANDIARAN

Aurten ere ez

Aurreko su-etenaren garaian —benetako su-etenaz ari naiz, ez 2006ko *su-eten iraunkorraz*, baizik euskal gizartea adoretu eta piztu zuen 1998ko su-etenaz—, *Jakinen* idaztea egokitu zitzaidan bolada batez. Garai hartan gauza guztiak politikoa-goak ziren, denok politikoagoak ginen, edo horrela bizi ginen, edo horrela gogoratzen dugu orain; kontua da idazleek ere politikaz hitz egiten zutela, eta iritzia ematen zutela eta aldarria egiten zutela. Ba, garai hartako artikulua batean, aipatu nuen nola Bernardo Atxagak dei egin zion kultur munduko jendeari, erantzukizuna onar zezan. Begien aurrean agertzen hasia zen gizarte berriaren ardatz, kultura jarri zuen. Kultura, «herritarrok elkartu ahal gaituen bakarra» zela esan zuen.

Zenbat denbora pasa den, eta zer gutxi entzuten diren horrelakoak. Lizarra-Garaziko garaiak ziren, bertsolariek akordio hura posible egin zuten alderdien alde ahotsa altxatu zutenekoa —«haiek asko arriskatzen ari dira eta gu ere prest gaude pauso bat emateko»—; idazle talde esanguratsu batek publikoki eman zuen bere iritzia —«Espero dugu, desio dugu zuek ere, euskal herritar batzuenak bakarrik den Euskal Herritarrok, ondare unibertsala bihurtuko zaretela, gai izanen zaretela, zuen politikari esker, euskal herritar guztien zerbait izatea. Askatasunaren lexikoa handitu eta aberastuko duzuela espero dugu»—. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak deklarazio bat onartu zuen esanez euskara gure gizarteari kohesioa eman eta bateratuko lukeen lokarria izango zela, «etorkizuneko erronka handiei denon artean aurre egiteko».

Zenbat denbora pasa den, eta zer bitxiak eta ausartak iruditzen zaizkigun orain horrelako agerraldiak. ETAk su eten behin betikoa eta egiaztagarria iragarri zuen arratsaldean bertan, Iruñeko kaleetara atera ginen berehala. Oso gogoan genuen aurreko hura, zer giro zegoen kalean, zer indar. Baina gu bakarrik aritu ginen urriaren 20an Alde Zaharrean ezer ospatzen. Betiko jendea zegoen betiko tabernetan, betiko egunkariak irakurtzen, betiko zerbezak edaten, eta betiko solasak tartean. Ez zegoen zer ospaturik, antza.

Zer berandu etorri den dena.

Imanol Muruak idatzi du garaiz iritsi dela komunikatua. «Berandu, baina garaiz». Hala izango da. Baina gu bakarrik ibili ginen behin betikoa omen den komunikatuagatik pozik kalean, ospatzen. Eta kultura ardatzean jarri beharra berriro nork aldarrikatuko zuen pentsatzen hasi eta ez zitzaigun ahots hori bururatu, ez zitzaigun mihi puntara izena etorri, ez genuen irudikatu nork egingo lukeen oihua, nork edukiko lukeen autoritate hori, batzen gaituena kultura dela esan eta erantzun zabala jasotzeko. Pentsakor itzuli ginen etxera, hitzorduarekin asmatu ez bagenu bezala, topaketa beste nonbait antolatu izan balute bezala. Eta gainera berandu zen, ospakizunak non ziren jakin izan bagenu ere ordurako jada denak erretiratuak izango ziren etorkizunaz eta amestsez luze jardun ondoren, pozik eta adoretzu hurrengo egunean argia desberdina izango zela erabat sinetsita.

Esku artean daukat Joseba Sarrionandiaren *Kartzelako poemak* liburuaren edizio berritua. Poema batean, inoiz mundua leunagoa eginen dela gure inguruan diosku, «eta nahinorantz abiatuko gara nahieran / eta maite ditugun lagunak besarkatuko ditugu / eta den edaririk bizigarriena edanen dugu / eta legeaz landako gure mintzairan solastatuko gara».

Ze gaizki egin dituzten gauzak. Zenbat ignorantzia, utzikeria, zenbat lardaskeria, zenbat inkompetentzia. Ze lotsa, kultura sailekoak Euskadi Sarien erabakien berri emateko erabilitako argudio argudiaezenak argudiatu nahian ikusi nituenean. Ze panorama dugun begi aurrean. Izan zen garai

bat pentsatu nuena ona zela kultura saila eskuz aldatzea. Onuragarria izango zela euskal kulturarentzat. Diruak eta egiturak kudeatu beharrak nahitaez bultzatuko zituela arduradun berriak arduraz jokatzera, eta euskal kultura euren ere egitera, ez baita gauza bera etxea kanpotik ikustea edo etxe barruan egotea; inor ez baita harrika hasten bere etxeko kristalen kontra, pentsatzen nuen.

Baina zer egin duten. Zer egiten ari diren.

Gogorra izan zen Euskadi Sarien emate ekitaldia. Gogorra izan zen Marije Sarrionandia anaiaren eskutitza irakurtzen ikustea. Gogorra izan zen Blanca Urgellekin trukatu zuen bostekoa. Ozena izan zen falta zenaren presentziarik ezaren oihartzuna. Pena eman zidan Ur Apalategiatik. Bere liburuagatik. Pena eman zidan Karlos Zabalagatik. Ivo Andritxen liburu zoragarriaren itzulpenak protagonismo gehiago merezi zuen. Mehmed-Pacha bisirrak agindutako zubiarekin hasten den epopeia Mendebaldearen eta Ekialdearen arteko borrokaren parabola bikaina da: printze germaniarrak eta erresuma turkiarra, kristauak eta musulmanak, serbiarrak eta otomandarrak, denak Vixegrad hiria banatzen duen Drina zubian borrokan, egungo Bosniaren eta Serbiaren arteko mugan. Ederra da zubiaren garrantziari buruzko metafora. Hilketak, matxinadak eta maitasun istorioak gorabehera, zubiak lortuko du azkenean ez erlijioak ez ideologiak, ez diruak ez aginteak, ez bisirrak ez enperadoreak lortu ez dutena: zubia izango da iraungo duen bakarra, lotura hautsezina.

Uste dut Atxagak horrelako zerbait proposatzen zuela 1998ko su-etenean kultura ardatzean jartzea proposatu zenean: goazen gure zubiaren bila. Han eseriko gara denok, ibaiez alde honetakoak eta bestaldekoak. Hor edango ditugu *rakia* botilak eta Vixegraderaino iristen diren bisitarien etorrera zainduko dugu. Gero, eguna erortzearekin batera, nor bere etxera joango da, nork bere otoitzak egingo ditu gauero bezala, eta bakoitzak bere ametsak gurtuko.

Zubiaren metafora ederra da. Eta badu nahikoa indar *Zubi bat Drinaren gainean* izeneko liburu ederra sortzeko. Ba-

du nahikoa indar Karlos Zabalak Ivo Andritxen literatura euskarara ekarri eta, berak ere sormen lan luze, nekagarri eta pozgarriaren ondoren beste liburu berri bat sortu eta harengatik saritua izan eta sari horrek gutxienez beste urtebetez itzulpengintzan lasai aritzeko aukera eman eta horrelako beste lan bati heldu ahal izateko.

Zubia metafora ederra da, baina metaforak motz geratzen dira errealitatearekin alderatzen ditugunean. Ez nuke esango gure herria zubi baten inguruan batzuetan bai besteetan ez batzen diren bi herrik osatzen dutela. Atxagak, orduko hartan, esplikatu nahi zuen euskal jendeak kontzientzia hartu beharra zeukala euskal gizartearen zati bat baino ez zela, eta jakin behar zuela beste muturrean dagoen komunitatearekin batera bizitzen. Pentsatzen dut gaur egun ere gauza bera sinatuko lukeela. Baina uste dut askoz errealagoa dela betiko ihesean dabilen horrek esaten diguna: berak ez duela zubirik behar, hizkuntza dela bere zubia. Urrun egonda ere, euskaraz hitz egiten duenean, euskaraz irakurtzen edo entzuten duenean, bere herrian sentitzen dela. Parisen Biarritzen baino euskaldun gehiago daudela. Nevadan, Erronkarin baino gehiago. *Aberria* hitza beteegi dagoela. Zafratuta dagoela, zikinduta, erabilia eta usteldua.

Atxaga telebistan ikusten ari naiz. Ez dira egun gutxi Fernando Aranburu idazleak salatu duela, beste behin, euskal idazleak ez direla askeak, diru laguntzen menpe bizi direla. 300-500 ale inguru saltzen dituztela. Gustu txarreko broma iruditu zait. Bostehun lagun, Otsagabia osoa izan liteke. Herri oso bat. Ederra da zure liburua herri oso batek erostea. Tristeia eta miserablea da idazle baten ahotik hori gutxiestea. Bestea, aske izatearena, ez da miserablea, patetikoa da. Atxagak ez zion erantzun nahi izan. Zaunka ari dira, beraz zamalkatzen ari garen seinale. Horrelako zerbait erantzun zuen. Baina diru-laguntzenak baditu bi buelta. Kultura subentzionatuta, diote. Simulakroa, esan zuen harako hark. Artifizioa!, oihukatu zuten. Aranburuk eta besteek gezurra diote, ondo asko baitakite gaur egun euskal kultura deitzen

dugun hori diru-laguntzarik gabe altxatu zutela askok askoren artean. Frankismo minean hainbat idazle egungo euskal literaturaren oinarriak jartzen hasi zirenean, nor joan zitzaizen diruarekin? Non zegoen dirua, *Argiako* jendea euskal prentsa euskaraz egiten dena zela aldarrikatu eta aldizkaria berriro bultzatzen hasi zenean? Ikastolek, ze diru jaso zuten hasi zirenean? Zenbateko diru-laguntzaz hornitu zuten *Egunkaria*, kaleratzen hasi zenean? Zenbat, Aranburu?

Nafarroako komunikabideek zero euro jasoko dute datozen urtean Nafarroako Gobernutik. Zero. Komunikabideak ez al dira ba gaur egungo komunitateek elkarren berri izateko duten bidea? Ez al dira leiho bat mundura? Herriek beren berri eman, komunitatea bera trinkotu eta munduaren oihartzuna jasotzeko bozgorailuak ez ote dira? Aranbururi ondo irudituko zaio noski komunikabide batzuek itxi behar izatea, edo txikiaren txikiaz azkenean desagertzea. Aurelio Artetari ere ez zitzaion iruditzen «galera objektiboki larria» euskara desagertzea, baina mundua askeago izango da nagusiak nagusitzen baldin badira? Askeago izango da bakarrik idazle batzuek argitaratu baldin badezakete? Askeak zer dira, handiak bakarrik? Boteretsuak? Hegemonikoak? Espainolak eta frantsesak askeagoak dira, Aranburu?

Sarrionandiari eta Atxagari behin baino gehiago entzun diet idazten hasi zirenean bakardade handian aritu zirela, begi urdineko zakurren gisara, leratik tiraka eta nora jakin gabe, izoztutako basamortuak zeharkatzen.

Noizko su-eten kulturala?, galdetzen nuen orduko artikuluan hartan. Aurten ere ez. Ez du ematen.¶